

Udalbatzarrak 2000.03.30ean onartua

1. ARRAZOIAK AZALTZEA

Gizarte Zerbitzuetako Sistema Publikoak, besteak beste, ardura hau daukate, familiek eta norbanakoek daukaten elkarbizitza beharrei egoki erantzutea, beti ere alojamendu, jantzi, elikadura, zaintza, afektu, e.a.eko lehen premiak estaltzeari buruz. Gizarte Zerbitzuek behar horri erantzuten diote, Alojamendu eta Elkarbizitzako Oinarrizko Prestazioaren bitartez.

Bestalde, gizarteko beharrei eta eskaerei eman beharreko erantzunak herritarren gertu-gertu jarri behar dira, haren komunitatean, eta eremu horretan eraman behar da eskuhartze politika, hau da, lojamendu normalizatuko alternatibak, jatorrizko komunitatetik deslotu barik. Tutoretzapeko Etxebizitzak pertsona horientzatko lojamendu alternatiboa dira, bitartekoa behar den horri egokitzeko bidetik eta ez alderantziz, beharra bitartekoari.

Tutoretzapeko Etxebizitzak lojamenduak dira, non-eta independentzia pertsonal dexente handia duten pertsona helduen talde batek aukeratzen duen autonomia erregimenean bizitzea, nahiz eta erakunde publiko edo pribatu baten tutoretzapean eta laguntza teknikoaz. Ekipamendu horrek, beste ezerk ez bezala, intimitatea errespetatzen du eta norbanakoen potentzialitateak sustatzen ditu, eta beste alternatiba batzuk baino hobeto bermatzen dute haren elkarbizitza pertsonalaren eta gizarteratzearen normalizazioa.

Lojamendu babestu hau, kanpoko laguntzarik behar ez duten egoera fisiko eta psikiko batetan egonik, beraien etxebizitzan mantentzeko zailtasunak dituzten (egoera txarrean dagoelako edo elkarbizitza arazoengaitik), edo etxebizitza utzi beharrean aurkitzen diren edo baliabide ekonomiko, familiar edo/eta sozialik ez duten hirugarren adineko lagunentzat osatzen da.

Programa honetako onuradunaren perfila honela definitu dezakegu, pertsona balioduna edo nahio autonomia pertsonala duena, generalean bakardade egoerak jota –abandonu pertsonala, etxebizitza egoera txarrean edo egoera onean ez egotea, gizarte-familian liskarrak izatea edo eusteko gaitasunik ez.

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak asm Tutoretzapeko Etxebizitzaren zerbiatzua abian jartzeko aukera du eskuartean orain denbora luze. Hala ere, ez dagoenez udal etxebizitzarik horretarako erabiltzeko, jabe pribatuko etxebizitzak errentan hartzeko zailtasun handia ere gehituz (alokairuan ia ez da etxebizitzarik eskaintzen), ez dugu izan orain arte baliabide hori abian jartzetik; baliabide horrek erantzun egokia emango dio bizi dugun eskariari.

Une honetan izan du Udalak aukera Arrasaten Tutoretzapeko lehen etxebizitza abian jartzeko behar ziren baldintzak betetzen dituen etxebizitza bat errentan hartzeko.

Gizarte Zerbitzuetako gaietan udalak dituen eskumenen arabera eta bereziki hirugarren adineko pertsonen laguntzeko direnak, tutoretzapeko etxebizitza jarri du abian Arrasateko Udalak pertsona nagusientzat, eta udalari dagokio hura antolatu, kudeatu eta administratzea.

I. TITULUA.

TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZ

I. KAPITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Tutoretzapeko lojamenduak Udal Sareko ekipamendu batzuk dira, Oinarrizko Lojamendu Prestazioa eraginkor egiteko, eta baliabide espezifikoak dira, hirugarren adineko biztanleen bizi kalitatea sustatzeko Zerbitzu hauek ezarritako laguntza ibilbidean.

2. Artikulua.

Hirugarren adinekoentzat elkarbizitzarako alternatiba bat ematea du helburu, bere ohiko gizarte ingurunean gelditu ahal izateko eta bizitza komunitarioan parte hartzeko behar duen independentzia pertsonalerako beharrezko laguntzak edukitzeko.

Helburua: Pertsona nagusiaren oinarrizko beharrak bermatzea, hala nola, lojamendua, mantenua eta jantzia, lojamendu alternatiba horren bitartez, elkarbizitza ingurune komunitario eta normalizatu batean laguntza erantzun modura dagoena.

3. Artikulua.

Kanpoko laguntzarik behar ez duen egoera fisiko eta psikiko batean egonik, etxebizitzan mantentzeko zailtasunak dituzten (egoera txarrean dagoelako edo elkarbizitza arazoengaitik), edo etxebizitza utzi beharrean aurkitzen diren edo baliabide ekonomiko, familiar edo/eta sozialik ez duten pertsona nagusientzat jarri ohi dira tutoretzapeko lojamenduak.

4. Artikulua.

Etxebizitza hauetan bizi direnek etxeko laguntza zerbitzua jasoko dute, astelehenetik zapatara arte, ezartzen diren eguneroko orduekin, eta denentzako zerbitzuez arduratuko dira (etxebizitza garbitzea, gosaria prestatzea eta erabiltzaileen jarraipen pertsonala, erropa zikina eramatea eta garbitu eta plantxatutako erropa jartzea Iturbide Egoitzatik, e.a.). eguneroko otordu guztiak, etxebizitza garbitzea, erropa garbitu eta plantxatzea eta etxekoen jarraipen pertsonala.

II. KAPITULUA.

GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANUEI BURUZ

5. Artikulua.

Arrasateko Udala, Gizarte Zerbitzuetako sailaren bitartez, zerbitzuaren gestioaz, administrazioaz eta ongi jarduteaz arduratuko da, zer horretan tutoretzako ahalmena erabiliz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Saila - Gizartekintzaren laguntzaz. Ardura hori honela gauzatuko da, etxebizitza aldizka ikuskatuz eta gainbegiratze teknikoak eginez.

II. TITULUA.

ERABILTZAILEEI BURUZ

I. KAPITULUA

SARTZEKO BALDINTZAK

6. Artikulua.

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eduki ahal izango dute tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuaren erabiltzaile izaera:

—60 urtez gorakoa izatea. 60 urtez beherako eskatzaileek plaza bat eskuratu ahal izango dute, baldin eta 60 urte edo gehiagoko beste eskatzaile batekin ezkonkidetza edo antzeko harremana, edo bigarren gradura bitarteko ahalbidetasuna badu.

—Eskaera aurkeztu aurreko 5 urteetan Arrasatekoa izatea edo Arrasaten erroldaturik egotea.

—Gaisotasun infekto-kutsagarriarik ez edukitzea.

—Eguneroko aktibitateak inoren laguntza barik egiteko gai den egoera fisiko eta psikikoa edukitzea (menpekotasun maila ez izatea 3tik gorakoa, Sakontzen eskalan).

—Elkarbizitza normalizatua ahalbideratzen duten jarrera sozial eta ohitura pertsonal eta garbitasunari dagozkionak izatea.

—Goian aipatzen diren baldintza guztiak betetzen ez direnean, Udaleko Gobernu Batzordeak hartuko du akordioa, Gizarte Zerbitzueta batzordearen txostena eman ondoren.

II. KAPITULUA.

ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. Artikulua.

Erabiltzaileek askatasunik handiena izango dute, araudi honek eta elkarbizitza arauak ezartzen dituzten mugen barnean. Hauek egiteko eskubidea ere izango dute:

a) etxebizitza erabiltzeko.

b) eguneroko lanetan behar duten laguntza profesionala jasotzeko.

c) bere etxebizitzan bisitak jasotzeko, ezartzen diren orduetan.

d) urtean gehienez 45 eguneko oporrak edukitzeko. Beti ere, etxebizitzatik kanpo dauden egunak kontuan izan beharko dira egoiliarren aportazio ekonomikoari begira, eta egun horietakoa ohiko aportazioa baino %50 gutxiago izango da.

e) ezartzen diren ordezkari organuen bidez bizitza komunitarioaren funtzionamenduan parte hartzeko ordezkaria aukeratzeko.

f) beharrezkoa balitz, behar dituzten gizarte zerbitzu eta prestazioak bideratuko dizkie erabiltzaileei Tutoretzapeko Etxebizitzari adskribatutako gizarte laguntzaileak.

g) Arrasateko Udaleko erakunde autonomoa, Iturbide Egoitzako zahar etxearen eguneko zerbitzuak, instalazioak eta aktibitateak erabiltzeko.

h) Izendatzen zaion plaza hartzeko, aldaezin izaerarik izango ez duena.

i) Janarirako.

Janariak eta jatorduak bere garaian ezartzen direnak izango dira. Ahalegina egingo da, medikuak esandakoak jarraituz, erabiltzaileen adin eta egoera fisikoa kontuan izanik, menuak egokienak izan daitezten.

j) nahi dutenean etxebizitzatik irteteko, baina nora doazen eta gutxi gora behera kanpoan zenbat denbora emango duten adieraziko dute.

k) ezkonkidetza harremana edo antzekoa dutenek logela bera erabiltzeko.

l) Bere gelako eta ate nagusiko giltza edukitzeko, bakoitzak berearen printzipioa betetzearren.

m) edozein arrazoiengatik, erabiltzailearen menpekotasunak Etxebizitzan bizitzen jarraitzen utziko ez balio, Arrasateko Udalak konpromisoa hartzen du erabiltzaileen egoera pertsona nagusientzako Egoitza sare normalizatuan bermatzeko.

8. Artikulua

Betebehar hauek izango dituzte tutoretzapeko lojamenduko erabiltzaileek:

a) Barne araudian ezarritako elkarbizitza arauak beteko dituzte erabiltzaileek, eta elkarren arteko errespetua eta tolerantzia oinarri behar bezala portatuko dira eta elkarri lagunduko diote.

b) Etxebizitza eta hango ekipamendua zainduko dute.

c) Gizarte laguntzaileari jakinarazi beharko diote, hilabete lehenago, etxebizitza uzteko nahia edo beharra.

d) Bere egonaldiako ezarria izan zaion diru kopurua garaiz ordaintzea. Hori dela eta, erabiltzaileek dirusarrereri buruz izaten duten edozein aldaketa jakinarazi behar dute, tasa hori beste egoera horretara egokitzearen.

e) Ahal duen neurrian etxeko lanetan lagundu, etxebizitzaren funtzionamendu onerako, eta instalazioak egoera onean mantendukoditu, eta ematen zaizkion altzari, tresna eta arropak bereak balitu bezala zainduko ditu.

f) Etxeko laguntzaileari eta etxebizitzari adskribatutako gizarte laguntzaileari bere gelara sartzen uztea.

III. KAPITULUA. HUTSEGITEAK ETA SANTZIOAK

9. Artikulua.

Etxebizitzako elkarbizitza nahita oztopatzen badute erabiltzaileek, gainontzeko erabiltzaileen edo pertsonalaren eskubideak errespetatzen ez badituzte edo etxebizitzara sartzeko eskaera egiten denean, nahita, gezurrezko datuak ematen badituzte, santzionatu egingo dira. Oro har, Araudi honetako edozein arau ez betetzea falta modura hartuko da, eta hauek arinak, larriak edo oso larriak izango dira. Araudia betetzen ez duten erabiltzaileak denboraldi baterako bidaltzea ere jasotzen dute santzioek.

10. Artikulua.

Arrazoi hauengatik galduko da Tutoretzapeko Etxebizitzaren erabiltzaile izaera:

- a) Borondatez uko egin diolako. Inoiz ez da ustezkoa izango, baizik eta espreski eta zalantzarik gabe agertu behar da.
- b) Santzio baten ondorioz bidali dutelako.
- c) Hil egin delako.
- d) Arrazoi justifikaturik gabe, etxebizitzatik kanpo aldi jarraituan edo tarkeka egon delako, oporraldian urtean 45 egun izan ezik.
- e) Hileroko kuota ekonomikoak ordaindu ez dituelako.
- f) Bere sarrera eragin zuten egoerak bertan bera geratu edo aldatu direlako.

11. Artikulua.

Etxebizitzako erabiltzaileak izango dira egitez edo ez egitez instalazioetan sortzen diren kalteen erantzule, bai eta gertatzen diren ordenaren nahasmenduena ere. Horretarako, oso larriak, larriak eta arinak izango dira hutsegiteak:

Hutsegite oso larriak:

- a) Hiru falta larri edo gehiago egitea behin eta berriro.
- b) Etxebizitzako erabiltzaileei edo gainontzeko pertsonalari eraso fisikoa edo tratu txarrak eragitea.
- c) Erabiltzaile izaerari dagokionean, eta onura eskuratzeko, gezurrezko deklarazioak ematea edo ezkutatzea, edo zehatzak ez diren datuak edo datu garrantzitsuak ematea.
- d) Etxebizitzako ondasunetan kalte garrantzitsuak edo elkarbizitzan kalte nabariak eragitea.

Hutsegite larriak:

- a) Hiru falta arin edo gehiago egitea.
- b) Instalazioko, pertsonalaren edo edozein erabiltzailearen ondasunak edo edozein objektu lapurtzea.
- c) Kuotaren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzea.
- d) Etxebizitza erabiltzea erabiltzaileen familiarterako edo/eta lagunen elkarbizitzarako, denboraldi baterako bada ere.

Hutsegite arinak:

- a) Errespeto falta hutsa. Honela adieraz daiteke: beste onuradun batekiko edo zerbitzuari lotutako pertsonalarekiko tratu desegokia, jarrera edo hitz deskontsideratu edo desegokiak.
- b) Etxebizitzako altzariak, tresneriak, objektuak edo instalazioak arretarik gabe erabiltzea, pertsonaren adin edo egoera fisikoaren ondorio izan ez daitezkeenean.

12. Artikulua.

Aurrez klasifikatutako hutsegiteren bat egiten duten erabiltzaileei santzio hauek jarriko zaizkie:

Hutsegite oso larriak:

—Etxebizitzatik bidaltzea aldi batez, hilabete eta sei hilabete bitartean, eta kasu batzuetan behin betiko bidali daiteke.

Hutsegite larriak:

—Bidaliko dutela ohartaraztea.

—Hiru hilabete baino luzeagao izango ez den aldi batez bidaltzea.

Hutsegite arinak:

—Hitzez edo idatziz ohartaraztea.

13. Artikulua.

Falta arinek bi hilabetetara galduko dute indarra, larriek lautara eta oso larriek urtebetara, baldin eta epe horietan interesatuari expedientearen bideratzea jakinarazi ez bazaio edo, falta arinen kasuan, zigorrik ezarri ez bazaie.

14. Artikulua.

Zerbitzuari adskribatutkao gizarte laguntzaileak erabakiko ditu hutsegite arinak. Hutsegite larriak eta oso larriak Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak erabakiko ditu.

III. TITULUA.**ERREGIMEN EKONOMIKOA****15. Artikulua.**

Araudi honetako 17. artikuluan ezarritako tasaren zenbatekoa ordaindu behar dio erabiltzaileak Arrasateko Udalari. Nahiko baliabide ekonomiko ez duten familia unitateko erabiltzaileak, 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera kalkulaturik, eta horren ondorioz, kuota osoa ordaintzen ez dutenak, beharturik egongo dira zorra errekonozitzeko agiri bat sinatzera. Arrasateko udalarekin erabiltzailearen erantzunbehar ekonomikoak jasoko ditu agiri horrek. Agiri horretan, sinatzean zein ondaren duen agertuko du erabiltzaileak, eta orain duen ondarea eta geroago izan ditzakeen gehikuntzak konprometituko ditu, aitortutako zorra ordaintzeko.

Erabiltzaileak bere burua behartzen du bere ondasun egoeran izan daitekeen edozein aldaketaren berri emateko Udalari.

Erabiltzaileak baja hartu ostean, sortu den zorra kobratuko dio Arrasateko Udalak, zorrean duen zenbatekoa ekarriz haren finantza kontuetatik, halakorik izanez gero.

Ondasun higiezinak izanez gero, zorra kitatu ahal izango dute haren oinordekoek, zenbatekoa ordainduta. Hala egin ezean, Udalak bere eskubidea erabiliko du ondasun horretan, zor errekonozimenduan oinarriturik, judizioz dagokion hitzetan eta prozeduran.

16. Artikulua.

Familia unitatearen baliabide ekonomikoak zehaztu eta kalkulatzeko.

16.1. Erabiltzailearen baliabide ekonomikoak

Arau hauek aplikatuz lortuko da erabiltzaileak ordain behar duen kuota

16.1.1. Erabiltzaileak hileko pentsioa baino ondasun eta dirusarrerara gehiago ez badauka, hileko pentsio horri %75 aplikatuz ateratako emaitza izango da kuota, eta gainerako %25 hark nahi duenerako erabil dezake, baina kopuru hori ez da 30.000 pezetatik beherakoa izango. Hileko pentsioak sartuta dauka aparteko soldataren alde proportzionala.

16.1.2. Finantza ondasunak izanez gero erabiltzaileak, hala nola, eskudirua, finantza kontuak eta aurrezki kontuak, e.a. (finantza merkatuan dauden formuletako edozeinetan), kuota nominala ordaindu behar du, berdin diolarik zer pentsio duen, bere pentsioaren %75ren baliokidea den kuota bat ordaintzea esleituz gero egokitu lekiokkeen norberarentzat geratzen den urteko kopurua berdindu arte bere finantza ondasunen kopuruak.

16.1.3. Ondasun higiezinaren kasuan, honela jardungo da:

a. Erabiltzailearen ohiko etxebizitza. Hiru egoera bereiztuko dira:

a.1. Etxebizitzan jarraitzen du, ondorio hauetarako hartzen den familia unitatean sartutako kideetako batek: ez da errendimendutzat jotzen.

a.2. Etxebizitzan jarraitzen du familia unitatean jotzen ez den pertsona erabiltzailearen familiaren beste kide batek: katastro balioaren %2aren baliokidea den errendimendu bat jotzen da, eta horri kenduko zaio, hala badagokio, hura erosteko den hipoteka maileguaren interes eta amortizazioan ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

a.3. Etxebizitza hutsi edo erabiltzailearen familiakoa ez den pertsonaren batek erabilia: katastro balioaren %10aren baliokidea den errendimendu bat jotzen da, eta horri kenduko zaio, hala badagokio, hura erosteko den hipoteka maileguaren interes eta amortizazioan ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

a.4. Alokairua. Alokairuaren zenbatekoa, eta edozelan ere katastro balioaren %10aren baliokidea den gutxieneko bat baloratuko da, eta horri kenduko zaio, hala badagokio, hura erosteko den hipoteka maileguaren interes eta amortizazioan ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

b. Beste etxebizitza batzuk (edo beste ondasun higiezin batzuk). Bi egoera bereizten dira:

b.1. Etxebizitza hutsik edo edozein pertsonak erabilia: katastro balioaren %10, eta horri kenduko zaio, hala badagokio, hura erosteko den hipoteka maileguaren interes eta amortizazioan ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

b.2. Alokairua. Alokairuaren zenbatekoa, eta edozelan ere katastro balioaren %10aren baliokidea den gutxieneko bat baloratuko da, eta horri kenduko zaio, hala badagokio, hura erosteko den hipoteka maileguaren interes eta amortizazioan ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

16.1.4. Erabiltzailearen baliabide ekonomikoak zehazteko prozedura:

16. Artikuluaren 1.1. atalean ezarritakoa aplikatu ostean nahikoa bada dauka pentsioa ezarritako tasa estaltzeko, erabiltzaileak ordaindu behar duen kuota tasarena izango da.

Daukan pentsioaren zenbatekoa ez bada nahikoa tasa osoa ordaintzeko, 16. artikuluan 1.2. ataleko araua aplikatuz estaliko da geratzen den aldea.

Daukan pentsioaren zenbatekoa eta daukan finantza aktiboak nahiko ez balira kuota osoa ordaintzeko, 16. artikuluan 1.3. ataleko araua aplikatuz estaliko da aldea.

16.2. Familia unitatearen baliabide ekonomikoak.

Aurreko eragiketak egin eta gero, nahiko ez badira erabiltzailearen baliabide ekonomikoak tasa osoari aurre egiteko, familia unitateko gainerako kideengana joko du Udalak, arduradun subsidiario moduan, elikagaien elkarrekiko prestazioaren obligazio zibila ordaintzeko, Kode Zibilaren 143tik 146 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera, beti ere Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legearen 33. artikuluan baldintzak betetzen badira (Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa).

17. Artikulua

Arrasateko Udaleko Tutoretzapeko Etxebizitzan egotearen tasa hilean 72.250 pezetan finkatu da.

Zerbitzuaren eskatzaileak zentroan plaza dagoelako jakinarazpena jaso ostean, bi egun izango ditu, jakinarazi eta gero, hura erabiltzeko. Epe hori igaroz gero plaza erabili gabe, ondorio guztietarako, plaza erreserbako egoeratzat joko da, 5 egun igaro arte, horiek ere jakinarazpen horretatik kontatzen hasita, eta hortik aurrera plaza erreserbako eskubidea desagertu ahal izango da.

18. Artikulua

Araudi honetako 16. artikuluan finkatutako tasari buruz, hobari hauek aplikatuko ditu Arrasateko Udalak, kopuru hauen arabera:

Hobari orokorra:

Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentua – Gizartekintzak ematen duen dirulaguntzarekin bat datoz kopuruak; hortaz, hobaria aldatuko da, hala badagokio, foru departamentu horrek erabakitzen dituen kopuruaren aldaerarekin aldi berean.

Pentsio hartzaile ez kontributiboa: 38.000 PTA pertsonako eta egonaldi hileko.
Gainerako erabiltzaileek: 21.700 PTA pertsonako eta egonaldi hileko.

19. Artikulua

Honela zehaztuko da erabiltzaileen aportazioa: 17. artikuluan ezarritako tasari kenduko zaio 18. artikuluan zehaztutako hobaria. Horren ondorioz, hauek izango dira aportazioak:
Pentsio hartzaile ez kontributiboa: 34.250 PTA pertsonako eta egonaldi hileko.
Gainerako erabiltzaileek: 50.550 PTA/hilean

20. Artikulua

Aurreko artikulua aplikatzen diren kopuruak ordaintzeko obligazioa izango dute, egonaldien truke edo, hala badagokie, plaza erreserben truke, erabiltzaileek eurek eta, izaera subsidiarioz, Kode Zibileko 143 eta 144. artikuluek aipatzen dituzten pertsonak, beti ere urriaren 18ko Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legearen 33. artikulua baldintzak betetzen badira, Ordenantza honetako 16. artikulua 2. atalak xedatzen duen bezala.

21. Artikulua

Orokortasunez, ateratzen den tasaren zenbatekoa eskatu ahal izango zaie beharturik dauden pertsonari, hil natural bakoitzaren lehen egunetik edo, hala badagokie, sartzen diren egunetik, administratu eta kobratzeko, Arrasateko udalak zehazten dituen arauen arabera eta aurrez ordaindu edo aurrez jartzeko eskakizunaren kalterik gabe.

22. Artikulua

Arrasateko Udaleri egokituko zaizkio, batetik, aplikagarri diren hobariak zehaztu eta kalkulatzeko eta, bestetik, aplikazioaren ondorioz tartejartzen diren erreklamazioak erabakitzeko.

Erabiltzaileak ordaindu beharreko tasaren bukaerako kopurua zehaztu eta gero, kopuru horren berri emango zaio eta hamar egun naturaleko epea izango du erreklamazioa aurkezteko.

Araudi honetan araututako tasak hil natural bakoitzaren amaieran likidatu eta kobratuko dira. Ordaintzeko era: hura kobratzeko eskudun denak zehazten duena izango da.

23. Artikulua

Araudi honetan agertzen diren tasen trukeko zorrak premiamenduzko prozedura administratiboaren bidez eskatuko dira, tasa sortzen den egunetik bi hil igarotzen direnean. Aldi hori amaitutakoan, premiamendu bidez kobratuko du tasa udal dirubilketak, eta hartarako, zordunen zerrenda eta aurreko paragrafoan aurreikusten diren gorabeheren justifikagarriak erantsiko dituzte.

V. TITULUA

ONARTZEKO PROZEDURA

24. Artikulua.

Tutoretzapeko lojamendua eraibiltzeko izangaiak aukeratzeko prozedura interesdunaren eskabidearekin hasiko da, haren esku jarritako eredu normalizatuaren bidez, eta atal bat izango du, eskatzaileak zuzeneko seniderik ba ote duen edo ez jakiteko (ezkontidea, aurrekorik eta ondorengorik zuzenean) eta, hala badokio, horien identifikazio datuak. UTSn aurkeztuko da eskabidea, eta Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuari zuzenduko zaio.

25. Artikulua

Tutoretzapeko lojamenduan sartu eta gero, proba gisara 90 egunean egongo da izangaia han. Aldi hori igarotakoan, hara egokitzeko ezintasunen bat erakusten duten gorabehera pertsonal edo aldaera psikofisikorik ikusi ezean, gizarte laguntzaileak egindako txostenaren ostean, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak erabakiko du hura sartzea behin betikotasunez.

26. Artikulua.

Eskaerarekin batera, nahitaez, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

—Interesatuak behar bezala sinatutako eskaera inprimakia.

—Eskatzailearen NAREN fotokopia.

—Gizarte Segurantzako Kartillaren fotokopia.

—Dirusarrera eta Ondasunen Adierazpena, eta hor adieraziko dira:

* Aribideko urtealdian jasotako pentsioa(k).

* Kapital higiezin (alokairuak,) edo/eta higigarrien (aurreko urtealdiko interesen laburpena) etekinak.

* Hala izanez gero, azken Errentaren Aitorpena.

Azken 5 urteotan ondasunik eskualdatu ez izanari buruz Ogasun Ordezkaritzak emandako ziurtagiria.

Ogasun Ordezkaritzak emandako ondasunei buruzko ziurtagiria.

—Medikuaren txostena, non-eta zehaztuko da ez duela gaisotasun infekzio-kutsakorrik, ez eta elkarbizitza normala aldatu dezakeen gorabehera psikiatrikorik.

—Bizitza autonomia aurrera eramateko Ezintasunaren balorazioa (Sakontzen eskala), Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako zerbitzu medikoek egingo dutena.

—Udalak interesgarriztat jotzen duen beste edozein agiri.

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako saila arduratuko da itxoin eta erreserba zerrendak etien, hura onartu ostean gertatzen diren bakanteak hornitzeko.

V. TITULUA

ESKUMENAK BANATZEA

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzueko saila:

—Erabiltzaileari informazio eta aholkularitza ematea, tutoretzapeko etxebizitzaren programaren eduki, laguntza eta sarrera baldintzei buruz.

—Eskaera jasotzea eta espedienteko datuak betetzea (gizarte-familiakoak, ekonomikoak, besteak).

—Banakako atentzioa eta beste egoitza alternatiba edo erantzun batera joateko gestioa, egoiliarren edozein arrazoiengatik eskatzen duenean: integrazioa ez, elbarri paratzea, e.a.

—Foru Aldundiko Gizartekintzari bidaltzea hauen fotokopia:

* Eskaera eta baremoaren puntuena.

* Parte hartzen dutenen artean karga ekonomikoak banatzeko kalkuluarena.

—Sarrera baimena.

—Itxoin zerrendak antolatzea eta betegabe dauden plazak hornitzea.

—Zehaztea, batetik, egonaldiaren hileko kostua eta, bestetik, esku hartzen duten alde biei ezar dakiekeen erregimen ekonomikoa.

-Urteko plaza-kostua zehaztea.

-Barne Araudia onartzea.

Gizartekintza (Gipuzkoako Foru Aldundia)

—Balorazio medikoa, fisikoa, psikikoa eta funtzionala, eguneroko ekintzak garatzeko gaitasun egoera zehazteko, bere mediku taldearen bitartez.

—Udaletako profesionalen laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea.

—Tutoretzapeko etxebizitzari dagokien aportoazio ekonomikoa edo dirulaguntza.

ORDENANTZAKO ARAU-HAUSTEAK:

Gizarte Zerbitzuetako Batzordea

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak jakinez gero eta dagokionean frogatuz gero ez dela egia eskatzaileak edo haren familiakideek alegatu dutena Araudi honetan eskatzen diren gorabeheren buruz, berehala deuseztuko du erabilera izaera, eta eskatzaileari jakinaraziko dio, eta ordaindutako diru kopuruak erreklamatuko dizkio eta gertaera salatuko du jurisdikzio penalean, baldin eta arau haustean dolozko portaerarik ikusiz gero.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Arrasateko Udalak, laguntzen onuradunei, zorraren errekonozimenduaren agiri publikoa eskatuko die, onuradunen egoerak hobera eginez gero, Udalak bere kreditu eskubidea erabili ahal izan dezan.

Era berean, laguntzen adjudikatarioen egoera ekonomikoen aldaketa Udalari jakinarazi behar zaio, prestazioen jarraipenari buruz behar diren erabakiak har ditzan.

1. ERANSKINA

PERTSONA NAGUSIENTZAKO EGOITZETAN, GIPUZKOAN DAGOEN ONARTZEKO BAREMOA

Tutoretzapeko Etxebizitzan sartzeko espedienteen balorazioan, aldagai hauek neurtuko dira:

1. GIZARTE-FAMILIAREN EGOERA:

Bizi den familian eta gizartean eskatzaileak duen egoera jasotzen da aldagai honetan, eta batez ere babesgabetasun egoera dakarten egoerak adieraziko dira:

- Onak jotzen diren egoeran bizi direnak, edozein egoeratan arazo nabarmenik sortu gabe... 0 puntu.
- Bakarrik bizi direnak, baina eskatzaileak gizarte baliabideak baditu, Puntu bat
- Ohiko etxebizitzan bizi direnak, baina haiekin bizi diren familiakide edo pertsonak behar bezala laguntzerik ez badute, osasun edo lan eta antzeko arrazoiengatik. 2 puntu
- Ohiko etxebizitzan bizi direnak, laguntza behar duten familiakide edo pertsonekin: 3 puntu
- Zentro, pentsio, ostatu, e.a.etan bizi direnak, baina hainbat arrazoiengatik horiek utzi behar dituztela, 4 puntu
- Herrian seme-alabekin bizi direnak, baina laguntzarik gabe eta/edo afektibitatez gabe. 5 puntu
- Erdi abandonatuko egoeran, bakardadesn edo isolamendu afektiboa, 6 puntu
- Bakarrik bizi direnak, familiarik gabe herrian, 7 puntu
- Kili-koloko edo pilatuzko egoeran daudenak, 8 puntu
- Familian liskar larria eta etengabekoa egotea, edota aterpetxean edo antzekoan lotan egoteagatik edota ostatu plaza bat edo bere etxebizitza uzteko premian egoteagatik, 9 puntu
- Abandonu, babesgabe, familiarik gabe edo pertsonarik ez izatea gutxieneko laguntza emateko, tratu fisiko edo psikiko txar larriak jasateagatik, 10 puntu

2.- EZINTASUN FISIKO ETA PSIKIKOAREN EGOERA.

Aldagai honetan pertsonaren mugak edo elbarritasunak baloratzen dira, ikuspegi fisikotik nahiz psikikotik.

Aspektu hori aplikatzeko, Erakundeetan menpekotasuna baloratzeko eskala erabiliko da (Sakontzen).

3. ETXEBIZITZAREN EGOERA.

Aldagai honetan eskatzailea bizi den etxebizitzaren bizigarritasuna baloratuko da, etxebizitza partikular, zentru edo beste edonolako egoitza mota izanik ere.

- Bizigarritasun baldintzak izatea, zerbitzu guztiak dauzkala eta etxebizitzaren titularra izanik. 0 puntu.
- Egoera onargarrian egotea, eskatzailearen seme-alabaren edo familiartekoren batekoa denean etxebizitzaren titularitatea.
- Egoera onargarrian egotea, erabiltzeko lagapenean, 2 puntu.
- Egoera onargarrian egotea, baina berokintza, igogailu edo telefonorik gabe, beharrezkoa denean, 3 puntu.
- Egoera onargarrian egotea, baina urruti, erdigunetik kanpo. 4 puntu
- Gutxieneko baldintzak betetzen dituzten zentroetan, pentsioetan, e.a.etan, baina egoaldi mugatuan, koste astunekoa, edo kasu berezietan laguntzarik ematen ez dutenean, 5 puntu.
- Berriro errentako egoeran, 6 puntu.
- Bizigarritasun egoera txarreko etxebizitza batean, 7 puntu.

-Egoera txarrean eta Erdigunetik urrun, komunikaziobiderik gabe integrazioa edo iristeko bidea samurtzeko, 8 puntu.

-Osasun txarragatik, pilatuta dagoelako, urik ez duelako, e.a., eguneroko bizitza galerazten duten traba arkitektonikoak dituela, 9 puntu.

-Bizigarritasun eskaseko egoeran egotea, pitzadura handiak dituelako, itoginak, heztasunak, e.a., etxebizitza utziarazi dutelako, 10 puntu.

4. EGOERA EKONOMIKOA.

-B taula (senar-emazte eta bikoteentzat) A taularen (bakarrik dauden pertsonentzat) %133 da, eta abiapuntutzat urte bakoitzerako ezarritako pentsio ez kontributiboa hartzen da.

A TAULA	PUNTUAK
PEK x 1 bitartean	10
PEK x 1,5 bitartean	9
PEK x 2 bitartean	8
PEK x 2,5 bitartean	7
PEK x 3 bitartean	6
PEK x 3,5 bitartean	5
PEK x 4 bitartean	4
PEK x 4,5 bitartean	3
PEK x 5 bitartean	2
PEK x 5,5 bitartean	1
PEK x 5,5 baino gehiago	0

B TAULA	PUNTUAK
PEK x 1,33 x 1 bitartean	10
PEK x 1,33 x 1,5 bitartean	9
PEK x 1,33 x 2 bitartean	8
PEK x 1,33 x 2,5 bitartean	7
PEK x 1,33 x 3 bitartean	6
PEK x 1,33 x 3,5 bitartean	5
PEK x 1,33 x 4 bitartean	4
PEK x 1,33 x 4,5 bitartean	3
PEK x 1,33 x 5 bitartean	2
PEK x 1,33 x 5,5 bitartean	1
PEK x 1,33 x 5,5 baino gehiago	0

FAKTORE ZUZENTZAILAK

Faktore zuzentzaile hauekin bidertuko da egoera bakoitzean lortutako puntuazioa:

- | | |
|-------------------------------------|-----|
| 1.- Gizarte-familiaren egoera | 3 |
| 2.- Ezintasun egoera
(Sakontzen) | 3 |
| 3.- Etxebizitzaren egoera | 2 |
| 4.- Egoera ekonomikoa | 0,5 |
- Baremoa aplikatzeko, dagokion abanikoaren aldaeretako batean bakarrik puntuatu ahal izango da egoeretako bakoitza.

2. ERANSKINA

ERABILTZAILIEN ELKARBIZITZA ARAUAK

1. Jaikitze ordua librea izango da, baina ez gosaltzeko ordua baino beranduago. Erabiltzailearen bat ondoezik badago, gaisorik dagoelako, arduradunari ohartaraziko dio, atenditu dezaten.

2. Beti errespetatu behar dira bizikideen logelak, haien baimenik gabe sartu gabe eta haiek kanpoan daudela inoiz sartu gabe, eta hori hutsegite oso larritzat joko da.

3. Erabiltzaileek arreta berezia jarriko dute gertueneko familiartekoen etxebizitza eta telefono aldaketa jakinarazteko orduan.
4. Gomendatzen dugu arreta bereiza jartzea ez ateratzeko besteei enbarazu egin diezaiekeen soinurik, batez ere atsedean orduetan.
5. Ez garbitu eta ez zabaldu arroparik logeletan, ez eta janaririk gorde edo prestatu ere.
6. Ez erabili logeletan aparatu elektrikorik, gasezkorik edo ito edo sutea izateko arriskua dakarren beste ezer.
7. Balio ez duten gauzak uzteko tokiak egongo dira hartarako. Ez bota ezer leihotik edo komuneko tazatik.
8. Pertsona arduradunari beti jakinaraztea aparatuen funtzionamenduan edo altzarietan nabaritutako anomalia oro, hainbat aguroen konpontzeko.
9. Erabiltzaileek askatasun osoa dute etxebizitzatik irten eta sartzeko, eta horretarako giltza bat emango zaio erabiltzaile bakoitzari. Eskatzen da, irteten duen bakoitzean arduradunari jakinaraztea nora doan eta, gutxi gorabehera, zenbat denbora egingo duen kanpoan.
10. Nahi dutenean etxebizitzatik kanpo otorduak egin ahal izango dituzte, arduradunari gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazten badiote.
11. Era berean, jaiak, asteburuak, oporrak, beren familiarteko eta lagunekin igaro ahal izango dituzte, arduradunari gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazten badiote, eta beti esango dute norekin eta nora doazen. Hortik kanpoko egonaldiak ez dira urtean 45 egun baino gehiago izango.
12. Gainontzeko erabiltzaileei, langileei, enbarazua eragin diezaieketen eztabaidak ekiditea.
13. Bixitei dagokienean, ez da ordutegi zehatzik egongo, eta egoiliarren sen onaren baitan utziko da, beren bixitei gomenda diezaien jatorduetan eta atsedean orduetan etortzea ekidin dezatela.
14. Jatorduetan, menu orokorrari egokituko zaizkie. Mediku diagnostikoaren ondorioz bakarrik egingo zaie diagnostiko horren arabera janari errejimen berezia.
15. Behar dituen osasun zerbitzuak mediku titularrak eta praktikanteak bakarrik egingo dituzte, eta larrialdietarako zerbitzuak, Arrasaten ezarritakoak izango dituzte.
16. Erabiltzaileak ospitalean sartuz gero, familiartekoak arduratuko dira osasun laguntza, arreta, ospitaleko bisitak, gaixoa zaintzea, e.a.i buruz.
17. Etxebizitzan ez da onartuko erabiltzaileek ekarritako altzaririk.
18. Erabiltzaileek Tutoretzapeko Etxebizitzaren zerbitzuak errespetatu eta erabiliko dituzte, hots, logelak, bainugelak, jangela eta egongela, e.a. Arau hauetan aurreikusten ez dena, Udalak, Gizarte Ongizate Batzordearen bitartez, ezartzen duenaren arabera izango da.

3. ERANSKINA

JANTZIAK

Jantzi markatuak: Gutxieneakoak

GIZONEZKOAK:

6 musuzapi

6 barruko arropa oso

4 galtzerdi pare

1 bata eta zapatila
4 alkandora
4 galtza
2 jertse
Berokia
Garbiketarako boltsa, behar den guztiarekin.

EMAKUMEZKOAK:

6 musuzapi
6 barruko erropa oso
4 galtzerdi edo panti pare
1 bata eta zapatilak 4 blusa eta 4 gona edo, bestela,
4 soineko
2 jertse edo txaketa
Berokia
Garbiketarako boltsa, behar den guztiarekin.

4. ERANSKINA

Arrasaten, 2000koaren(e)an
Batetik,, Arrasateko Udaleko Alkate-
udalburua
Bestetik jaun/andrea

AZALTZEN DUTE:

Lehena.
Arrasateko Iturriotz kalea, 21-2an dagoen Tutoretzapeko Etxebizitzaren maizterra da Arrasateko Udala.
Bigarrena.

..... jaun/andreak Tutoretzapeko Etxebizitza horretan sartzeko eskaera aurkeztu zuen Arrasateko Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez; eskaera hori onartu du Arrasateko Udalbatzarrak (noiz).....(e)an egindako bilkuran, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen txostena onartu eta gero.
Horregatik guztiagatik, alde biek

ERABAKI DUTE

Lehena.
Tutoretzapeko Etxebizitzako zenbakia duen logela era konpartituan erabiltzeko baimena ematen dio Arrasateko Udalak jaun/andreari, hurrengo artikuluetan aipatzen diren baldintzetan.

Bigarrena.
Honela erabiliko da etxebizitza hori:
-Ematen dioten bakarkako edo bi lagunentzako logelaren erabilera (biko logela).
-Etxebizitzan denontzat diren gainerako gelak era konpartituan erabiltzea.

Hirugarrena.
Etxebizitza guztiz ekipatua eta erabiltzeko egoera ezin hobean egongo da, eta ez dago zertan ekarri altzaririk.

Laugarrena.
Arrasateko Udalak zerbitzu hauek ematea bermatuko du:
-Eguneko otordu guztiak.
-Etxeko lanak egiteko, etxeko laguntza zerbitzua.
-Jai egunetan, gutxieneko zerbitzuak emango dira.

Bosgarrena. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak:
5.1. Tutoretzapeko lojamenduaren erabiltzailea beharturik dago, etxebizitzan, eguneroko lanak egitera, eta hango instalazioak egoera onean mantentzera.

5.2. Erabiltzaileak, altzariak izan ezik, beharrezkotzat jotzen duen izaera pertsonaleko objektuak jarri ditzake, nahi izanez gero.

5.3. Beste eskubide hauek ere izango dituzte:

a) Etxebizitzaren erabileraz gozatzeko.

b) Eguneroko lanak egiteko, behar duten profesionalaren laguntza jasotzea.

c) Etxebizitzan bisitak izateko.

d) Etxebizitzaren eta komunitateko bizitzaren jardunean partze hartzeko, ezartzen diren ordezkaritza organoen bidez.

e) Egunez Iturbide Egoitzako zerbitzuez eta instalazioez gozatzea, eta hortik aparte geratzen direa zuzeneko laguntza zerbitzuak.

5.4. Tutoretzapeko lojamenduko erabiltzaileek betebeharrak izango dituzte:

1. Garaiz ordaintzea Udalbatzarrak, egonaldia truke, urte horretarako finkatu duen diru kopurua. Hori dela eta, erabiltzailea beharturik dago bere dirusarreretan edozein aldaketa jakinaraztera.

2. Behar diren elkarbizitza arauak errespetatuko dituzte erabiltzaileek; elkarrekiko errespetuan eta tolerantzian, elkarlaguntzan eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako portaera izango dute.

3. Bere logelako egunerako garbiketa lanak egingo dituzte, ahal duen neurrian.

4. Etxebizitza eta barneko ekipamentua zainduko dituzte, eta ohiko erabileraren ondorioz izan ez eta gertatzen diren kalteei erantzuniko diete.

5. Arduradunari jakinarazi behar diote etxebizitzatik alde egin behar dutela edo alde egiteko asmoa dutela, gutxienez hilabete bat lehenago, behin betiko bada edo aldi baterako bada.

6. Tutoretzapeko Etxebizitzako zerbitzuak errespetatu eta erabiliko dituzte erabiltzaileek, hala nola, logelak, bainugelak, jangela, e.a.

7. Bere logelan sartzen utziko diete etxeko langileari eta etxebizitzari adskribatutako gizarte laguntzaileari.

Seigarrena.

Tutoretzapeko lojamenduen erabiltzaile izaera arrazoi hauengatik galtzen da:

—Bere jokaerarekin, intentzio txarrez etxebizitzako elkarbizitza oztopatzen duenean, beste erabiltzaileen edo/eta langileen eskubideak errespetatzen ez dituztenean edo/eta etxebizitzan sartzeko eskaera aurkezten denean nahita datu faltuak ematen dituztenean.

—Etxebizitzatik denboraldi luzean edo/eta tarteka, arrazoitu gabe faltatzen denean, barne araudiko 5.3.4. atalean aipatzen diren 45 egunak izan ezik.

—Erabiltzaileak hala nahi duelako.

—Elbarri dagoelako edo laguntza espezifiko behar duelako, eta halan izanez gero, oinarritzko Gizarte Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu medikoen balorazioa egin eta gero eta Sakontzen gaitasun/ezintasun taularen bidez, txostena egingo dute, Gizarte Zerbitzuetako Ongizate Batzordean onartzeko eta Arrasateko Udalaren udalbatzarrean berresteko.

—Egoiliarren ezintasun balorazioa onartu ondoren, baja emango zaio etxebizitzan eta sartzeko eskaera aurkeztu zuen udaleko Gizarte Zerbitzuei dagokie behar diren tramiteak egitea 3. Adineko Egoitza batean sartzeko.

—Hileroko kuota ekonomikoak ordaintzen ez dituelako.

—Eskaera sortarazi zuten arrazoiak aldatu edo konpondu egin direlako.

Zazpigarrena.

Arrasateko Udalarari dagokio kontratu honetan agertzen diren xedapenak betearazi eta interpretatzeko ahalmen guztiak erabiltzea, eta horien arabera hartutako erabakiak, bidezkoa bada, epaimahaien aurrean gainbegiratu ahal izango dira.

Agiri hau irakurri ondoren eta ados daudela egiaztatzeko, kontratu hau sinatzen dute bi aldeek, ale bitan eta eragin bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Arrasateko Udalaren izenean, Alkatea

Izp.:

Erabiltzailea:

Izp.: